DOHAN ZEURE ETXERAKO

1990ko Apirila /15. Alea

EIBARKO UDALA EUSKARA BATZORDEA

...eta kitto!

EIBAR: ZAHARTU AHALA TRISTETZEN?

GURE NATALITATE TASA EUROPAKO TXIKIENETARIKOEN ARTEAN DAGO

Gure mundua aurrera dihoa eta teknolojia berriak gero eta bizkorrago sortzen dira, baina momentuz inork ez du aurkitu etorkizuna aurreikusteko modurik. Gure jakin nahia betetzea ezinezkoa zaigunez lagungarri bihur daitezkeen prospekzioak egiten saiatzen gara, hau da, azken urteetan eman den errealitateaz jabetuz eta gure gizarteko baldintzak kontutan izanik hipotesiak botatzen ditugu eta ondorioz etorkizunaren argazki desberdinak soma ditzakegu.



FAMILIA HAUNDIAK DESAGERTZEN OTE?

Herri batek zenbat biztanle edo bizilagun izango dituen eta are gehiago biztanlego horren adin banaketa asmatzeak geroa hobeagoa izan dadin eman beharko liratekeen lehen urratsak ezartzen lagunduko liguke. Jakina da biztanlegoaren garapena hiru faktoreren arabera aldatzen dela, beraz, azter ditzagun banan eta Eibarko datuei lotu.

—Jaiokuntza edo hobeki esanda emakumearen natalitate-tasaz hitzegin beharko genuke; ezaguna denez, herri batek biztanlego kopurua finko mantentzeko emakume bakoitzak 2'1 ume izan beharko lituzke eta Eibarrek ematen dizkigun datuak ondorengo hauek dira:

URTEA	EMAKUME BAKOITZEKO HAURRAK / EIBAR
1980	1'571
1982	1'321
1984	1'148
1986	1'096
1987	0'882
1988	0'955

Koadroan ikus dezakegunez Eibarko tasa 2'1 zenbakitik oso urruti dago. 80ko hamarkadan sartu ginenean Eibarko tasa bajua zen, baina Europan gertatutakoa ikusiz denbora gutxitan errekuperazio bat espero zen. Horrela izan beharrean jadanik bajua zen tasa hura, jeisten jarraitu zuen eta eskuratu ahal izan ditugun azkenengo datuek diotenez, hots, 1988koak gaur lataren inguruan gabiltza, hau da, beharrezkoa zaiguna baino askoz urriago. Kopuruarekin batera haurrak izateko garaia ere aldatuz joan da. Duela 10 urte, 20 eta 29 urte bitarteko andrak izaten ziren haur gehien zituztenak, aldiz, gaur egun 25 eta 34 urte bitartekoetan kokatzen dira erditze gehienak,. Ondorioz, jendeak, edo hobeto esanda, bikoteek haurrak beranduago ekartzea erabakitzen dute. Europako beste lurralde batzurekin konparatu ezkero Eibarko datuak oso kezkagarriak dira, bajuena guk daukagu eta.

—Hilkortasuna. Bizitzaren kalitatea hobetuz doan neurrian bizitzeko esperantza zabalagoa da eta egoera hau ezer gutxi aldatzen da Elkarte Autonomo guztian.

LURRALDEAK	GIZONAK		EMAKUMEAK	
	1970	1980	1970	1980
EIBAR	69,78	71,22	76,36	78,03
GIPUZKOA	69,78	71,22	76,36	78,03
ESPAÑA	69,20	72,50	74,7	78,6
FRANCIA	68,4	70,2	75,9	78,4
ALEMANIA	67,41	70,18	73,83	76,85
IRLANDA	68,8	70,1	73,64	76,35
PAISES BAJOS	70,7	72,7	76,5	79,3

URTEA \ ADINA	0 - 14	15 - 64	65 +
1986	18 ,56	69,61	11,82
1990	14,52	70,64	14,82
1995	12,38	69,48	18,13
2000	12,18	66,83	20,97
2005	12,97	65,52	21,50

-Fluxu migratorioak. Hots, jendearen joan etorriak. Eibarrek garai latzak ezagutu ditu, 60. hamarkadako "Boom"aren ostean 75eko krisialdia heldu zen eta ondorioz hainbat lantegik alde egin zuten, eta lan falta zela eta gazte asko ere joan egin zen. Gainera kontutan izan behar dugu gazteak direla biharko gurasoak. Gaur, joan etorri guztiak kontutan izanik Eibarko saldo migratorioa negatiboa da.

1981 - 1986 garaian ..... 1'48
1986 - 1988 " .....0'4

Aldagai hauekin barajatu ditugun hipotesiak bi izan dira. Bata baikorra, non mugimendu migratorioak gaur eguneko negatibotik hutsera doazen eta emakumeen ugaltasun tasak igo egiten du. Bigarrena, lasaiagoa, zeren eta migrazioak hutsera joan arren emakumeen natalitate-tasaren igoera astiroagoa eta motelagoa da. Hipotesi ezezkorra ez badugu erabili gaur eguneko egoeratik behera joaterik espero ez delako da, baieztapen hau Europako hainbat herrialdetan gertatutakoan datza.

(2. eta 8. orrialdeetan jarraitzen du)

PAUSOKOA

Ezer baino lehen agur t'erdi eta eskerrik asko irakurle, azken "...eta kitto"n azaldu genuen moduan Gabon aurrean egindako inkestan adierazten den eran gehiengoaren gustoak betetzen ditugu eta. Baina kontutan edukiz irakurle gehienak gazteak direla, kolektibo honen eskaerei erantzun nahian hemendik aurrera "GAZTE GARA GAZTE" gehigarria argitaratzea erabaki da.

Horretarako arrazoi sendoak ditugulakoan gaude gaztez osatuta dago eta, eskolari esker, euskara "gehien eta hobetoen" dakien belaunaldi edo generazioa. Baina, paradoja eta kontradizioak direla medio, euskara gutxien erabiltzen dutenak dira. Zelan arraixo konprendidu leike hori?! Ez da erraza.

Beraz, erronka eta apostu berria daukagu 16. "...eta kitto" honetatik aurrera. Erronka diogu txantxetakoa ez delako dauden arriskuetan ez jaustea: produkto instituzional hotza eta panfleto giroko produktoa. Horiek gogoan izanda, bide berriak jorratzea eta gehigarri edo suplemento irakurgarri eta interesgarria eskaintzea dugu helburu.

Asmatuko dugun edo ez geroak eta zuek esan beharko duzue. Betiko moduan, hasieratik gaude prest sugerentziak eta kolaborazioak jasotzeko.

Amaitu aurretik laguntzaileak eskertu nahi ditugu: publizitatea egin eta egiten dutenak, Club Deportiboa argazki laboratorioa eta bilera-lokalak lagatzeagatik, informazioa eman eta ematen digutenak, agendarako informazioa txintxo-txintxo ekartzen dutenak, gure informazioak herrian oihartzuna edukitzeko lagundu gaituzten komunikabideak...eta azken batean irakurle guztiak zuek barik antzua da gure eta gure lana. Mila esker denoi

MENUA

2. Orrialdean:
•Irakurlearen txokoa

3. Orrialdean:
•Unibertsitate Laborala ren gainean

4./5. Orrialdean:
•"Narruzko Zezen" Lehiaketa

6. Orrialdean:
•"Gaztetan" programa berria
•THOR-en diska berria

7. Orrialdean:
•Mari Tere Munduate

8. Orrialdean:

calcul mecano

Zure Bulegoa Jazteko Egokienak Gara

Toribio Etxeberria
Telf: 70-07-50 / 70-11-95
EIBAR (Gipuzkoa)



Ford KONDIA S.A.

ZATOZ
SIERRA
BERRIA
IKUSTERA
EIBAR

LEHENGO ORRIALDETIK DATOR

60. hamarkadako Baby "Boom"ak eraginda gazte taldea mantendu egin zen, baina prospekzioa urte batzu gehiagotara luzatu ezkero talde horren beherakadaz ohartuko ginen, belaunaldi bakoitzean erdira jetsiko baitlitzake.

ADINA / URTEA	0 - 14	15 - 64	65 +
1986	18,56	69,61	11,82
1990	14,52	70,64	14,82
1995	13,24	69,03	17,72
2000	14,18	65,85	19,96
2005	16,14	63,91	19,93

Hipotesi bietan ikus dezakegunez zaharren multzoa bikoiztu egingo zaigu epe laburrean eta horrek sor ditzakeen arazoak gaur egun aurreikusi beharrenan aurkitzen gara. Emaitza hauek zenbait ikuspuntu desberdinetatik azter daitezke: ekonomikoa, zahar kopuruaren hazkundea, gazte murrizketa, lan mundukoa eta noski haur kopuruaren hazkundea, gazte murrizketa, lan mundukoa eta noski haur kopuruaren beherakada. Aipaturiko azken ikuspuntu honetan finkaturik, hots, haur kopuruaren beherakadan, azpimarratu beharrekoak zaizkigu bai eskola munduan bai gizartearen orekan faktore honek dituen eragin ezkorrak.

Eskola munduan:

-Ikastetxeen espazioen birmoldaketa, hots, zer egin soberan geldituko diren gelekin.

-Libre gelditzen diren irakasleen aprobetxamendua; haur kopurua jeisten dihoan neurrian birmoldatu egin beharko da hainbat irakasleen bete beharrak.

-Irakaslegoaren egokitu premia ereduen bilakaerak hartu duen joerari.

Egun, Eibarren, "A" ereduan matrikulatzen diren haurrak dozena erdira ez dira iristen, hau da, ia denak eredu euskaldunetan sartzen dira, baina momentuz irakasle elebakar asko ditugu eskoletan eta honek behar diren neurriak hartzera bultzatzen gaitu eskolak edozein motatakoa izanda ere, hots, publikoa, pribatua nahiz ikastola.

Gizartearen orekan:

-Haur gutxiko gizarte batek arazo psikolojikoak jasan ditzake. Gizarte mailan giro tristea nabarmentzen da. Gizartean haurren faltak sorterazten duen hutsunea oso haundia omen da.

-Belaunaldi desberdinen arteko gatazkaren gordinketa. Gazte kopurua jetsi egingo denez, kolektibo horren pisua eritzi mailan, kulturan, ekonomian eta beste hainbat alorretan oso txikia izango da helduen kolektiboari aurre egiteko eta gauza bera gertatuko zaie zaharrekin, demografian naturala izan zitekeen oreka apurtuz.

Horra hor beraz natalitate-tasaren jeitsierak ekarri ditzakeen zenbait ondorio laburki bada ere. Gure berriketaldietan erabiltzeko puntako gaia.



SARIKETA

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno hori hala bada eta AYERBEk oparituko duen liburua irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanez!

EIBARKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA
"... eta Kitto Sariketa"

15. Aleko sariketaren erantzuna: "Matsaria kalean dago" zen. SARITUA: Raquel Irusta, Santaiñes kalean bizi dena. Hurrengo Sariketarako Apirilaren 15erako bidali behar dira erantzunak. SORTE ON!!!

AYERBE LIBURUDENDA — Liburu salduenak

EUSKERAZ

"Obabakoak". B. Atxaga
"Nikolas txikiren abenturak". Goscinny
"Tobacco days". A. Lertxundi
"Euskal Herriko Mendiak". M. Angulo

ERDERAZ

"Temblor". R. Montero
"Cronica del rey pasmado".Torrente Ballester
"Arrupe. Una explosión en la iglesia" Pedro M. Lamet.
"La soledad era esto". J.J. Millas

IRAKURLEAREN TXOKOA

MENDI PISTAK ABANDONATURIK

Erredakzioaren oharra irakurri ondoren animatu naiz gutun hau idaztera.

Txikitatik mendira joan izan naiz Eibartar askoren moduan, lehengo gurdibideetatik eta askenengo urteetan gertatzen ari den geuza batek keskatzen nau, horregatik esatera noa ea norbait arduratzen den honetaz.

Benetan penagarria da esagutzen genuen gurdibideetatik mendira joateko asmoarekin etxetik irtetea, eta bide erdian geratzea jarraitu ezinda bidea garbitu gabe dagoelako, larrez beteta edo ta guztiz itxita, larren gaitik.

Esate baterako, zergatik utzi du Eibarko Udalak Arratera igotzeko gurdibidea galtzen Eltxartxa baserritik hasi eta Zumendiarañokoa. Baino? Eta andik gora... lotsagarria da ikustea Ama Birginaren "pausoak" nola dauden, ia ahastuta eta galtzen, gurdibidea ez delako behar dan moduan zaintzen.

Ez al dago inor horren ardura daukanik? Nor da mendira dijoasen gurbideen arduraduna? Nortzuk zaindu behar dituzte gurdibideak, baserritarrak edo ta Udaletxeak hartu behar du ardura hau?

Niri ondo iruditzen zait bide edo "pista" berriak egitea baserrietara autoz joan ahal izateko, baina oinez ibiltzea ere atsegina da eta uste dut txikitatik ezagutzen dugun gurdibideak zaindu beharko genukela eta gure semealabeei erakutsi gure arbasoen ondoreak direlako.

Eta atseginagoa delako mendira gurdibideetatik joatea orain egiten duten "pista" berrietatik baino, adibidez nik nahiago dut Salbaorera igotzeko Iragorritik Aizkaparrera joan, Txontatik egin duten "pista" luzetik baino., edo ta Irure eta Ilordo baserrietara leengo gurdibide zaharretik (gaur zoritxarrez galduta edo ia larrekin itxita) Plaentxiatik buelta emanda baino., eta ez esanik Karakatera igotzeko Agiña-Maltzatik gora Iturbetik.
Beno, agur eta beste bat arte.

Eugenia Iriondo

... eta kitto-ren euskara hobetu

"...eta kitto! hilabetekaria irakurtzen duen eibartar bat naiz.

Aspaldi honetan nabil zuei idazteko asmotan, eta gaur,hain zuen, "irakurleei galdetuz,... eta kitto! hobetu" irakurri dudanean, hurrengorako laga barik, neure eritzia berehalakoan azaltzea erabaki dut.

Oso ondo deritzot hobetu nahi horri, eta nik neuk, gai aldetik eta aipatzekorik ez badut ere, oso gogoko bait dut agertzen duzuena, badut kezkatzen eta amorrarazten nauenik. Egia esan, euskarari dagokionez, akats ugari izaten du aldizkari honek -azter ezazue oker nagoela uste baduzue- ;Hau dela eta, nire eskaria edota aportazioa"... eta kitto!" hobeto nahi honetan, eibartarrok euskara hutsean daukagun aldizkari bakarra euskara onean idatz dezazuen da.

Nire idatzia "... eta kitto!" ren mesederako izango delakoan, eta aurrera jarraitzeko animatuz,

Erredakzioaren Oharra: Mesedez eskertuko genizuke geurekin harremanetan jarriko bazina zehatz-mehatz aztertzeko gutunean diozuna. 118064 telefonoan daukazu koordinatzailea. Mila esker.

DROGAN Komenentzietara

Plaentzian, alkartu ziran aiskide bi, ta:


-Lehenguan, -ziñuan batak-, zuen taillar ondotik pasau nintzuan eta ikusi induadan. Edozein modutan be aurrerakada haundiren bat ein dok eure karguan; ba, uezaba intzala begitandu jatan. Jauntxo itxura gehiago eukan bihargiñana baiño; garbi jantzita ta eze-be ez eiten.

-Zer uste dok pa? Guk holan jaukagu tratua einda -erantzun zetsan bestiak-, alkarren komenentzietara.

-Ee...? Zelan dok hori?

Bai. Gu, pipia joten bizi gaituk. Uezabak guri, berak nahi daben beste pagatzen jeskuk, ta, gero guk pe, geuk nahi dogun beste bihar ein.

-...?



1990ko Apirila / 15. Alea

Gazte gara Gazte

...eta Kitto!

HARTZAREN KOBATIK

AZKEN GURUTZALDIA


Alice Cooperen kanta batek zion, "hemezortzi urte dauzkat... gizon eta ume bat naiz aldi berean". Hori da gakoa! Gazte izateak suposatzen dituen problemak ez dira txantxetan hartzekoak, ez. Alde batetik, pertsona helduei dagozkien erresponsabilitateak esijitzen zaizkigu, ikasketen arloan, esate baterako. Bestetik, ume koxkor batzuk bezala tratatuak izaten gara geure sentimendu eta jarrereei inolako jaramonik egin gabe.

Har dezagun gure gizarteko pertsona "helduen" artean zabaldu den azkenengo moda; gaztetxoen "poteoak" galeraztea. Itxuraz, gure gizartea bapatean konturatu da alkohola kaltegarria dela gazteriarentzat (hemezortzi urtetik gorakoenentzat ez?), eta, ¡zirt-zart!, hona hemen "lege lehorra", gazteentzat soilik, noski. Benetan paregarria izan da azken bolada honetan ikusi dugun panorama: tabernak txikiteroz beteta, eta, zurrutada biren artean, hemezortzi urtetik beherakoen "alkoholismoa" gaitzesten.

Ihazko filmerik arrakastatsuena, ikuslego kopuruaren aldetik, "Indiana Jones y la última cruzada" izan genuen. Orain nabaritzen dira ondorioak. Gizarte osoa, kargu publikoak buru direla. gurutzaldi berri batean murgildu da. Gazteen zurrutadak oztopatu edo galeraziko dituzten neurriak egunetik egunera areagotzen ari dira hemezortzi urtetik gorako ardo, gin-kas eta whisky kontsumitzaileen txaloen artean. Negargarria benetan.

Dena den, kontsolamendu bat eduki dezatela gure gazteek. Alkoholaren kontrako "gurutzaldi" hau, sortu zen bezala desagertuko da, histeriak sortutako kanpaina moralizatzaile guztiak bezalaxe. Gizarte hau erraz berotzen da kanpaina moralen alde, baina errezago ahazten ditu.

Beraz, pazientzia gazteok! Eta gure Jaungoiko Guztiz Ahaltsuari erregu bat zuzenduko diot: gurutzada eta debekazioa zaleengandik libra gaitzazu, jauna. Eta gurutzaldi hau, Spielbergen filmearena bezala, azkena izan dadila. Topa!



UNIBERTSITATE LABORALA:

URRIN ETA BERTAN DAGOEN MUNDU EZ EZAGUNA

Lehen urtean, "boom"a zela eta, herriko neskak kanpotik etorritako mutilekin ligatzeko zer egin ez zekitela ibili baziren ere, ondorengo urteetan grina hori emendatuz joan zen eta gaur egun ezer gutxi hitzegiten da Inibertsitate Laboraleko barnetegian edo internatuan dauden gazteen gainean.

Jakina, Laborala, barnetegia baino gehiago da, baina bestelako arloak ezagutuagoak direnez, ondorengo lerroetako informazioa osatzeko Juan Aldai, barnetegiko animatzailea; Koldo Irazu Ibarrakoa, Juanjo Etxeberria Asteasuarra eta Patxi Alkorta Ondarrutarra ikasleen laguntzarekin mintzatu gara.



Barnetegian 450 pertsona daude bizitzen eta estatu osotik datoz eibarrera ikastera. bi egoitza daude barnetegian. F.P./L.H.(Lanbide Heziketa) ikasten dutenena eta Ingenieria teknikakoena. L.H.n dauden %80a kanpokoa da eta %20a euskalduna. I.T.n (Ingieneria Teknikoa) denetatik dago. Euskaldunak, gailegoak, andaluzak, gaztelakoak, etab...

Lauko gelatan bizi dira ikasleak eta euren erara antolatzen dute logela. Planta bakoitzean komunak eta dutxak dituzte. 3 habitaziorentzat 6 komun eta 6 dutxa dituzte; bi pertsonarentzat bat. Biblioteka bat ere badaukate beraien esku, nahiz eta bibliotekatik liburuak hartu, beraien ikasketak logeletan egiten dituzte eta hemen ematen dute ia denbora osoa.

Unibertsitate Laboralean ekintza asko daude barnetegian bizi diren ikasleentzat: kirol mailan 2 polikiroldegi daude beraien esku, bilarra eta karate ikastaroa ere. Beraien artean txapelketak egiten dituzte gauean, hau da 9etatik aurrera baina orain uraren arazoa dela eta ez dute txapelketarik egiten. Bestalde, tiroa egiteko fosoa, ardoarekin tiroa, mendizale taldea, espeleologia eta eskaladak egiteko taldeak ere badaude.

Kirolak aparte utzita zeramika, marketeria, argazkilaritza, pintura eta makrame ikastaroak dituzte. Kultur ekintzetan, antzerkiak eta zine-klub bat dute eta hitzaldiak antolatzen dira. Udalaren antzerki-programazioa Unibertsitate Laboralan egiten dira.

▲ Lanbide Heziketan dauden %80 kanpotarrak dira.

▲ Kirol eta kultur ekintza ugari daude barnetegikoendako.

▲ Asko daude urtean 3 aldiz bakarrik etxera joaten direnak.

▲ Barnetegian ez dago neskarik eskaera gutxi dagoelako.

▲ Ingeneritza hasi eta %50ak lehen urtean lagatzen du.

Barnetegiko ikasleek sukalde eta garbiketako zerbitzuak dituzte, zeren ikasle asko asteburuetan beraien etxeetara joan arren beste asko daude urtean 3 aldiz bakarrik joaten direnak. Arazo gutxi sortzen dira beraien artean eta sortzen direnak oso txikiak dira, baina Barnetegiko arduradunak etengabe bertan daude giro ona ziurtatzeko.

Nesken arazoa ere aipatu behar dugu hemen. Barnetegian ez dago neskarik. Eskaerak ez dira asko neska aldetik eta hau izan daiteke arazoa zeren eta I.T. ez dute neska askok ikasten eta L.H. mailan metal eta elektronika ere ez. Geroago izan daiteke mixtoa, eskaerak gehiagotzen baldin badira, orduan posibilitatea ikusi beharko da.


Ikasketa mailaka eta ikasturte amaierako emaitzak aztertzerakoan ez dago batere zalantzarik Ingenieritza-ikasketek burukomin galantak ematen dituztela; ostera, Lanbide Heziketakoak ez dira horrenbesterako. Hona hemen datu batzu: Gutxigorabeherakoak badira ere datuok, esan liteke L.Hko lehen ikasturtea %85ak edo gainditzen duela. Ingenieritzan porrota bestelakoa da:%50ak laga egiten du, %20ak aprobatu eta %30a asignatura bat edo besterekin pasatzen da hurrengo mailara. Jakina, hori lehen ikasturtean, zer gertatzen ote da ikasketa amaieran? Hori hurrengorako utziz, horra hor Unibertsitate Laboralaren alderdi ez ezaguna herri mailan.

Alfredo ELORZA
ORTOPEDIA
TRATAMENDU EGOKIAK
ZEZENBIDE, 6 (EIBAR) Tel: 110070

BULEGO MATERIALA ETA ALTZARIAK
ETESA
KOMERTZIALA
Bidebarrieta, 66. 428 Postakutxa/Tel: 121973 (Eibar)

Eibarmoto
SALMENTA ETA KONPONKETAK
Jose A. Gisasola kalea (Eibar) Tel: 113332

MOISES ARTAETXEBERRIA



Moises Artaetxeberria Alfa ikastolako maixua da, eta etengabe ikasleak motibatu eta bultzatu egiten ditu antzerkiaren mundu zirraragarrian murgil daitezen. Izan ere, Narruzko Zezen lehiaketan Alfako lan ugari aurkeztu dira, hau nolabait, Moisesen eta irakasle-taldearen antzerkiarekiko sentsibilitatearen islada izanik.

Moisesek aditzera eman digunez, Ikastolan politika argi bat daukate aspalditik, eta antzerkia bultzatzea da, besterik gabe. Hau dela eta, umeek urtero gidoia, testua sortu egiten dute, eta ondoren Unibertsitate Laboralean egiten den Eskola- Antzerki Erakusketan aurkeztu.

Guzti hau ekintza eskolar bat izanik, asignatura ezberdinekin lantzen dute. Orduan, euskerazko klaseetan testugintza burutzen da; plastikan aldiz dekoratuak, jantziak... lantzen dituzte, eta musikako klaseetan entsaioa bera, mugimendua, ahotsa... martxan jartzen dute. Garai batean, montaje barnean, foko- jokua Izadi- ko klaseetan egiten zuten, baina orain Unibertsitate Laboralean dagoenez, ez da horrelakorik egiten. Dena den, dio Moisesek "bistan dagoena da irakasle- taldearen sentsibilitate eta lan koordinatuaren ondorioa dela guztia".

Bestalde, Moisesen ustetan irakaskuntzan, orokorrean, ez dago sentsibilitate handirik, "askok uste dute antzerkia titereen mundua dela, beste batzuk egiteko ausardikeria bat. Baina ez da hainbesterako: antzerkia neska- mutilek egin, bizi eta disfrutatu dezakete, eta baita gidoiak egin ere, ikusi den bezala".

Moisesek dioenez, bere funtzioa norbera motibatua egotea eta antzerki munduaz sentsibilitate bat edukitzea da, eta gero, zaletasun hau umeei transmititzea: informazioa eskeintzea zer egin jakin dezaten, antzerkira eramatea...



Susana Zubiriaren

"NORI KEXA EGIN"

Susanarekin elkartzean elkarrizketa hau mantentzeko ile eta begi bizi beltz dituen 18 urtetako neska bat aurkitu dut. Arrazoirik gabe, Susana era bat beldur aurkitzen dut elkarrizketa euskaraz egiteko orduan, berak esaten dit 3 urte daramatzala euskaltegian euskara ikasten eta dagoeneko 7. mailan dagoela baina hitz egitea pixkat kostatu egiten zaiola. Nik berarekin elkarrizketa mantendu ondoren gauza naiz esateko nire ustea, Narruzko zezen sariketan antzerki gidoi batekin euskara sailean irabazle bilakatu bada ez du inolako beldurrik izan behar euskaraz hitz egiteko orduan.

Elkarrizketaren zehar Susanak komentatzen dit gidoi honen gaia mediku- kontsultan zegoela burauru zitzaiola. "Nori kexa egin" antzerki gidoi honetan kontatuko digu nola sendagile batek uste zuen berak asko egiten zuela bere gaixoengandik baina hauen eritzia kontrakoa zen. Benetan gaurkotasuna eta beti indarrean dagoen gai bat da hau.

Susanaren interes amorratu hau antzerkiarekiko eta idaztearekiko ez da harritzekoa. Susana Narruzko zezen antzerki taldeko partaidea da eta honetaz gain orain dela bi urte Narruzko Zezen sariketan irabazle izan zen erdal sailean.

Azkenik, hemendik esango nizuke Susana idazten jarraitzeko eta, jakina, euskaraz, zuk zure idazteko gaitasuna jarri eta euskarak gainontzekoa egingo du.



Leire Carniceroren

"ANTTON EDO BIZITZA BAT ANTZERKIARENTZAT"

Badaude bai, idaztea atsegin duten pertsonak, honetaz gain beraien idazlanak sariketetara aurkezten dituztenak ere eta azken hauen artean irabazle amorratuak direnak. Leire Carnicero dugu hoietariko bat; 16 urte dituen aldatze ikastetxeko gazte honek oraingoan ipui batekin irabazi du Narruzko Zezen saria "Antton edo bizitza bat antzerdiarentzat" baina Leirentzat hau ez da gauza berria joan zen urtean bereganatu bait zuen "Antzerkia ez da ixiltzen" ipuiarekin Narruzko Zezen lehiaketan lehen saria eta aurten lehen aipaturiko sariaz gain "udaletxeko ipui lehiaketan" erdara sailaren barne txapeldun bilakatu da baita ere.

Leirek neska ixil xamarra dirudi eta hitz egitean ez du ahotsa gehiegi altxatzen baina Leire bera irakur genezake eta ez dago aitortu beharrik gauza asko dituela esateko.

Leire Carniceroren ipuin irabazle hau aztertzean eta Leire berak elkarrizketan esan didan bezela, ipuin honen barnean historio asko daude: amodioa, zahartzaroa, antzerkiarekiko maitasuna eta guzti hauek Leireren eskutik ipuin triste baten osotasuna eskeiniko digute, "Antton edo bizitza bat antzerkiarentzat".

Leirek ipuiak idazteaz gain antzerkia bere gustokoa du baina berak dioenez oso zaila iruditzen zaio antzerki luze bat idaztea nahiz eta oso motza iruditu antolatzaileek ezartzen dizkieten 3 orrialdetako muga.

Horra hor Leire, zuen esku bere idazlanak eta nork daki nora hel daitekeen irudimena.

ANTZERKI GIDOIAK

	Izenburua	Egilea	Ikastetxea
A' maila	1.a "Umezaintzailearen misterioa"	Nuria Vazquez	Alfa
	2.a "Hilketaren kasua"	Zaloa Urain	"
	3.a "Non dago Asier"	Idurre Uzin	"
	4.a "Beñat"	Nora Unzeta	"
	5.a "Tasio"	Ohiana Ieregi	"
B' maila	1.a "Nori kexa egin"	Susana Zubiria	Uni. Laborala
	2.a Eman gabe	———	———



Ez dago inongo dudarik: azken urteotan Eibarren antzerkigiroak berotuz eta sustraituz dihardu. Horren lekuko dira egun hauetako jardunaldiak, hileroko antzerki- emanaldiak, Maiatzeko Deba Beheko eskolumeen antzerki- topaketak eta orrialdeotako "NARRUZKO ZEZEN" Lehiaketa.
Deba Beheko ume, gaztetxo eta gazteei zuzendutako lehiaketa dugu "NARRUZKO ZEZEN", baina, zoritxarrez, eibartarrek hartzen dute parte soilik. Esan beharra dago erredakzio eta gidoigintza arloak saritzen direla eta guztira 274. 000. Pzta banatzen direla, erdiak euskarazko lanendako eta, beste horren beste erdarazkoendako, dirua Eibarko Udalak jartzen duelarik.
Merezi duela ziur gaudenez bi orriok euskarazko lanen protagonista batzuri eskaintzea erabaki dugu. Animo gazte eta gogoan izan "NARRUZKO ZEZEN" Lehiaketako lanek urtero otsailaren hasierako prestatu behar direla.



MILA ESKER ANTOLATZEAGATIK

IKER GARCIA

Antzerkia hiztegian, era honetan agertzen zaigu azalduta: "Eszenak errepresentatzeko artearen praktika da".

Baina neretzat antzerkia, horrezaz gain, hostorio harrigarri, zoragarri eta mirasgarrien errepresentazioa da; zu ere parte zarena, momentu horretan gertatzen bait da, eta pertsonaia berbiztuz, noski.

Horrela, antzestokian errepresentatzen diren obrak moeta desberdinekoak izan daitezke historio, pertsonai edo egoeraren araberan.

ANTZERKI DRAMATIKOA bere izenak esaten digun bezala, drama eta historio triste bat azaltzen digu. Honako gaiei buruzko ikusi ditudan obren artean, asko gustatu zaizkit "Bost ordu Mariorekin (Cinco horas con Mario)" Miguel Delibesek idatzia eta "Bernarda Albaren etxea (La casa de Bernalda Alba)" Federico García Lorcarena.

Lehenengoa bakarrizketa bat da, eta bertan hildakoaren emazteak bere senarraren gorputzarekin hitzegiten du. Bertan ez da agerzen pertsonai gehiagorik eta bakarrizketak obra guztia betetzen du.

Bigarrenak ("Bernarda Albaren etxea") azaltzen digu ama eta alabaren bizitza, etxean itxita, dolua gordetzen, oso berezia den giro andaluziar batean murgildurik. Obra guztian zehar, pertsonai femeninoak agertzen dira bakarrik, nahiz eta itsututa egon gizonaren agerreragatik.

Beste antzerki moeta bat, KLASIKOA izan daiteke, edozein arte edo literaturaren kopia. Ezagunenak Shakespearen obrak dira, eta hauen artean ezaguneak "Hamlet" eta "Romeo eta Julieta" izango liratekе.

Badugu ANTZERKI KOMIKOA ere. Historio barregarri eta entretenigarriak erakusten dizkiguna litzateke hau. Nik ikusi ditudanen artean aipatuko nituzke "Ni hurrengoan jeisten naiz, eta zu? (Yo me bajo en la próxima, y Vd.?)" Adolfo Marsillachena. Bertako bi aktore bakarrak, denbora eta pertsonai desberdinak betetzen dituzte.

Gustatu zaidan beste bat "Ertzaina al pil- pil" da, Geroa Taldearena. Obra hau psikiatriko batean bilakatzen da, obra bera Euskadin garatzen delarik.

Asko gustatu zaizkidan obrak, komikoak denak, "Bululu y Medio edo Alesio, pasatako denboren komedia (Bululu y Medio o una comedia de tiempos pasados)" Narruzko Zezen Taldearena, "Mala Yerba" Rafaela Aparicioren taldeak antzeztua eta "La Mamma" Florinda Chicoren taldekoarena izan dira.

Beste genero bat, komikoaren antzekoa, ERREBISTA da. Dantza eta musika espektakulo gehiagoz osaturikoa. Gehien gustatu zaizkidanak, protagonista bezala, Lina Morgan eta Concha Velasco aipatuko nituzke. Lan bezala "Zein bizki parea" (Vaya par de gemelas)" eta "Ama, artista izatea nahi dut (Mama, yo quiero ser artista)".

Ezin ahaztu beste antzerki moeta bat, oso garrantzitsua, neretzat: MIMIKOA. Honako honetan dena mugimendu eta keinuen bidez adierazten da. Ikusi ahal izan ditudanen artean, Peter Roberten mimoa gustokoa izan dut; baita "Pep Bou" ere, atsegina egin zait, bere "Bufaplanetes" obrarekin, den dena xaboizko ponpaz beterikoa. Era guztiko ponpak: haundiak, txikitxoak, gorriak, urdinak, kez beterik... Oso interesgarria benetan.

Antzerkia hain gauza zoragarria izanik eta hainbeste poztasun sortzen duena, lastima bat da hain oportunitate gutxi edukitzea antzerkia ikusteko eta honetaz disfrutatzeko. Batez ere herrietako biztanleak gogoz geratzen dira, beti, hiriburuetara joaten bait dira antzerkien jirak. Antzeztokien bukaerarekin ere, herrietako taldeak ezin dituzte obrak eszeneratu. Antzerkiaren heriotza ote...? Ez dut uste hori. Bada oraindik topaketa egunak heltzen direnean, eta leku guztietako taldeak ikusi ahal izatean, nagusiek bere gosea ase dezakete, bazkari berezi bat bezala eta gaztetxoei, gai berria ezagutzeaz gain, antzerkirako marmorra sortzeko aukera eskeitzen zaigu, opari bat bezala hartzen dugularik. Beraz, bihotz bihotzez: Mila Esker Antolatzeagatik.



NURIA VAZQUEZ

Nuria Vazquez, 13 urte dituen Alfa Ikastolako 8. mailako ikaslea dugu. Berak "Ume zaintzailearen misterioa" izenburua daraman antzez- gidoia aurkeztu zuen Narruzko Zezen lehiaketan, bere kategorian 20.000 pztako lehenengo saria eskuratu zuelarik.

Neskatxo honek landutako antzez-gidoari dagokionez, "bikote batek ume zaintzaile bat behar du, lanean ari bait da, eta festa batetan aurkitzen dute. Lehenengo momentutik gizonak pentsatzen du neska hau lapurra dela, baina bere emazteak ezetz dio. Azkenean, gauza asko pasatzen direnean, konturatuko dira ume zaintzailea lapurra dela."

Nuriak esan zigunez, maisuak (Moisesek) esan zien lehiaketa bat zegoela sari eta guzti, baina ez zien esan zenbaterainokoak ziren sari horiek. Bere ustez, gidoia idazlana baino errezagoa da, gidoietan gaia emanda bait zegoen. Hala ere, nahiz eta hitz hauen bitartez berak lortutako sariari garrantzia kendu, Moises-ek adierazi digunez, "neska hau oso oso ona da, erreztasun handia dauka idazteko".

Alfa ikastolan 8. mailako bi gela daude. Gela bakoitzak Eskola-Antzerki Erakusketan antzez-lan bat aurkeztuko du, eta Nuriak beraren gelakoek lantzen ari diren obraren inguruan hitzegin zigun: "Udaleku batetan neska-mutil batzuk aspertuta aurkitzen dira. Elkarrizketa batetan, batek beste bati esaten dio ea zer egin dezaketen hainbeste ez aspertzeko, eta besteak erantzuten dio neska-mutil gehiago etorriko direla eta orduan ondo ibiliko direla. Orduan, neska-mutil gehiago etortzen dira Udalekura. Haietariko neska bat asko gustatzen zaie eta enamoratu egiten dira. Gero, batek esaten du dantza bat egon behar dela azken egunean eta maitemindutako mutilak eztabaidaka hasten dira neskarekin dantzatu nahian. Orduan joku batzuk egitea erabakitzen dute, eta horrela irabazten duenak dantza egingo du neskarekin. Baina, azkenean ez du inork neskarekin dantza egiten, beste mutil bat agertzen delako.



NAGORE GUENAGA

Nagore Alfan ikasten duen 13 urtetako beste neska bat da. Narruzko Zezen lehiaketarako idazlan bat idatzi zuen, bere kategorian irabazle gertatzeagatik 15.000 pzta jaso duelarik. Hain gaztetxoa izanik, benetan harrigarria suertatzen da berak aurkeztutako "Ametsetako Antzerkia"-ren edukina: "Egun normal bat egin ondoren, kartetan jolasten hasten gara. Nik kopa asko edaten dut eta mozkortu egiten naiz. Orduan, ohera eramaten naute eta bertan ametsetan hasten naiz. Ametsa antzerki bat da, eta esnatzen naizenean, buruko mina kentzeko antzerki bat ikustera noa, eta antzerki hori nik amets egindakoa da".


Nagorek esan zigunez, Moises-ek esan zien idazlan bat egiteko gaia izan zitekeela beraien eritzi bat ematea, amets bat... eta orduan berak amets bat aukeratu zuen. Moises-ek adierazi zigunez, Nagorek ere idazteko izugarrizko gaitasuna dauka.

Nagore eta bere gelakoek ere Eskola-Antzerki Erakusketan parte hartzeko lanean dihardute: "Guk Asterix eta Obelix hartu ditugu pertsonaitzat, eta hauekin obra bat asmatu dugu. Abrarakurjis-ek esaten die Asterix eta Obelix-i pozoina egiteko falta zaizkion belar batzuk batzera joan daitezen. Erromatar batzuk elkarrizketa hori entzuten dutenez, aprobetxatzen dute Asterix eta Obelix ez daudela tropa guztia ekartzeko eta herria hartzeko. Erromatarrek herrian galdetzen dute ea nork dakien pozoina hori egiten, eta herrikoek Asterix eta Obelix-ek dakitela erantzuten dute. Hauek menditik etortzen direnean ikusten dute herrian ez dagoela inor eta aurkitzen dute nota bat non dauden esanez. Orduan, haruntz zuzentzen dira, eta erromatarrek ipinitako trampa batetan jausten dira. Erromatarrek herrira eramaten dituzte pozima egin dezaten aginduz.

Baina pozoina egiten ez dakitenez, edozer gauza botatzen dute. Erromatarrek pozoina edaterakoan oihuka hasten dira astoarena eta tximinoarena egiten. Orduan, herritarrek ihes egiten dute eta ospatzeko festa bat antolatzen".

ANTZERKI ARTIKULUAK

	Izenburua	Egilea	Ikastetxea
A' maila	1.a "Ametsetako argazkia"	Nagore Guenaga	Alfa
	2.a "Mila esker antolatzeagatik"	Iker Garcia	Iturburu
	3.a "Antzerkiaz zerbait"	Elizabeth Olabe	Itzio
B' maila	1.a "Antxon edo bizitza bat antzerkiarentzat"	Leire Carnicero	Aldatze
	2.a "Antzerkiaz zerbait"	Alex Odriozola	Itzio
	1.a Eman gabe	———	———
	2.a Eman gabe	———	———



ITXIERAN

Jendetza handia bilduz amaitu dira Unibertsitate Laboralean XIII. Eibarko Antzerki Jardunaldiak. Heldutasuna adieraziz, beraz, antzerkia sustraituz eta eibartarron negu amaierako ikuskizun bilakatu dira jardunaldiok. Ea bada jardunaldion kontestutik kanpo ere, hileroko eta bestelako emankizun puntualetara, joaten jarraitzen dugun. Zorionak!!.

Libreria Yraolagoitia
•Jaunartzerako opari eta errekordatorioak
•Ingeles eta euskal liburuak
•Papertegia
Bidebarrieta, 22 Tel: 111617

ANE MIREN
MODAK
ESTAZIÑO, 1 Tel: 701961

TRINKETE TABERNA
TRAGO EDERRAK
Errebal, 24 Tel: 701962

MARGOLA
TINDATEGIA
ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA
Bista Eder, 6 EIBAR Tel: 111249

"DEL DEBA" ETXEAGENTZIA
Pisuak eta lokalak
Industri-Pabeiloiak
Untzaga 8 Tel -110537 -118316

Restaurante - Asador
JOSHE MARI
Hostal
Arragüeta, 18 - Teléf. 120865
20600 EIBAR

LA KUESTA
OPTICO - OPTOMETRISTA
OPTICA DIPLOMADA
CALBETON 23 EIBAR
TELEF. 111061

umea
Umeen eta gazteen arropak
Errebal, 16 Tfno. 113164 EIBAR

...ETA KITTO!'k GOMENDATURIK



THOR

LP: "MATA A LA BESTIA"


Pasa den urtarrilean kaleratu zen irundar talde Heavy honen diska berria. Lehena 1988. urtean grabatu ondoren, bi urte baino lehenago kaleratu dute MATA A LA BESTIA bigarren diska hau. Donostiako TSUNAMI disketxean grabatua, TXALUPA eta THOR produktore bezala eta Iñaki Lopez tekniko lanetan aritu delarik. Dagoeneko kalean dira bi mila kopia.

Bertan bederatzi abesti aurki ditzakegu, hauetariko batzuk nahiko bizkorrak direlarik, adibidez LADRONES DE LIBERTAD edo PROGRESO VORAZ; baina hori bai, momentu guztietan melodia gordez.

Beraien musika ez dator bat, Euskal Herrira edo Estatu mailara sartzen ari diren mugimendu berriekin, Trash Metal, Speed Metal, Hard Core eabar, Heavy Metal klasikoaren hantz handiagoa du dudarik gabe, bai instrumentuei dagokionez; Teran (gitarra), Joxean (bajua), Iñaki (bateria), eta bai ahotsari dagokionez (Iñaki). Azken honen ahotsa,, momenturen batean nekagarri suertatu daiteke atzetik duen koroen falta dela eta, ahotsa oso fina bait du eta batzutan koroen falta honen hutsunea nabaritzen da.

Joan den Martxoaren 1Oean, diskaren aurkezpen egunean, beraiekin hitzegiten egon ginen Egiako gaztetxean, eta nahiz eta diskarekin nahi bezain pozik egon ez, oso denbora gutxi izan bait dute grabatzeko, ilusio handiarekin dabiltza beraren promozioa egiteko. Hau, Euskal Herri eta Estatu osoan emango da eta Frantzia aldera zabaltzen saiatuko dira. Zorte on.

GAZTETAN: GAZTETXOEK ONDO PASATZEKO PROGRAMA



"Duela gutxi euskeraren erabilpenari buruz egindako neurketaren ondorioak argitaratu eta aztertu ondoren gazteen artean ikusi ahal izan dugu kalean %7ak bakarrik erabiltzen duela euskara eta ikastetxe barruan %20ak soilik.

Emaitza hauek hobetu nahian Eibarko Udaletxeko Euskera Zerbitzuak 3 galderaz osatutako inkesta bat eratu zuen zenbait ikastetxetan pasatzeko: Instituto eta Armagintza Eskolan euskeraz ikasten duten 1. eta 2. mailako ikasleei (Maila bakoitzetik gela bat); R.E.M. eta 3. mailako "B" eta "D" ereduetako ikasleei (La Salle, Urkizu eta Alfan pasatu zen).

Inkestak pasatzerako orduan gelako partaideen laguntza genuen eta guztira 266 inkesta jaso genituen.

Inkestaren 3 galderak honako hauek ziren; ea zer egiten duten asteburuetan, zer egitea gustatuko litzaieken eta Udalarekin batera antolatutako ekintzetan parte hartzeko prest egongo liratekeen.

Erantzunen irakurketa egin ondoren, 1. galderaren erantzuna, hau da, egiten dutena zera da: 1) Etxerako lanak egin, telebista ikusi, gehienak kirolen bat praktikatzen dute: futbola, saskibaloia, gutxienak mendira joaten dira, eta ekintzarik nabarmenena Elgoibarrera poteatzera joatea da, batez ere larunbat arratsaldetan.

2) Egin nahi dutena da: Txangoak, bidaiak, kirolak (patinetean ibili, sky, futbola, tenis, surf, parapente, igeritokira joan), mendira, musika kontzertuak, gaztetxea... Alde handia dago 8. maila eta 1. eta 2. mailakoen artean parte hartzerako orduan.

3) 8. mailan jasotako 91 inkestetatik 18 parte hartzeko prest zeuden, 66 ez, eta 7 agian, ekintzen arabera.

1. eta 2. mailetan, 175 inkestatik, 90 prest zeuden, 70 ez eta 15 agian.

Eskaera horri erantzuna emateko Udalak 10 asteburutan zehar ekintza ezberdinak proposatzen ditu, Martxoaren 10ean hasi eta Maiatzaren 20an bukatuko direnak akanpada batekin. Hasi, txango batekin hasiko dira, Zarautzera zehazki. 10 Asteburuak era honetan osatzen dira; - 3 txango: Zarautz, Senpere eta Bertizko jaurerrira; - 4 Mendi ibilaldi: Elorriotik Elgetara, Zarauztik Donostiara, Urbiara, Urkiolara: - 2 Asteburu Abalzizketa eta Bakioko aterpetxeetan eta azkenengo asteburuan akanpada Delikan (Orduña).

Printzipioz ekintza bakoitzean 50 pertsonak parte har dezakete, honetarako 650.000 .- Pezetatako aurrekontua proposatu zelarik. Kontutan izan behar da guztiak irteerak direla eta hauen kostoa altua dela.

Kosto hauei aurre egiteko irteera bakoitzari tarifa bat jarri zitzaion: - Txangoak: 250. Pzta.; - Mendi-Ibilaldiak: 200. Pzta.; Aterpetxea: 500. Pzta.; - Akanpada: 400. Pzta.

Plangintza eratu eta gero Armagintza Eskola eta Institutora jo genuen, 7. mailakoan momentuz alde batera utziz; Programa azaldu ondoren, bi egunez, Otsilaren 21a eta 22a jolastorduan, ikastetxe hauetan egon ginen izena eman zezaten.

Egun hauetan 40 gazte apuntatu ziren, ekintza guztietan banatuta, beraz, eta oraindik lekuren batzu libre gelditzen zirenez, ikasle hauen helbideak lortu eta eskutitz bat bidali zitzaien.Berriz ere izena emateko beste bi egun jarri ziren, Martxoaren 5a eta 6a, oraingoak Udaletxeko sarreran eta arratsaldez, 3retatik 5etara.

Bigarren epe honen ondoren honela gelditu dira bidaiak: - Zarautzera: 14 pertsona; - Elorriotik-Elgetara: 10; - Bakioko aterpetxera: 34; - Urbiara: 24; - Urkiolara: 23; - Oriotik-Donostiara: 13; - Abaltzizketako aterpetxera: 39; - Bertizko jaurerrira: 17; - Delikara akanpada: 52. Denetara 267 lagun eta bataz-beste 76 matrikula ezberdin bete dira, gazte batzuk irteera batzutara apuntatu dira eta.

Euskara Zebitzuko Begirale Koordinatzaileak.

IBILTARIXAREN TXOKOA


ASTE SANTURAKO PROPOSAMENAK

Badirudi "gazte" izatea "ekintza" eta "mugimendu" hitzekin elkartzen dela. Baina gure herri honetan ez dago posibilitate asko horretarako. Hemen aipatuko dizkizuet aukera batzuk.

Aste-Santua egun batzuk barru dugunez, jakin beharra dago Europako herrialde desberdinetan badaudela albergeak: Austrian, Belgikan, Dinamarkan, Frantzian, Italian, Portugalen, Alemanian eta Suizan, prezioa nahiko ongi egonik. Eta bidai abentureroagoak egin nahi izan ezkero, Marruecos-era, Apirilak 12-tik 22-ra, 35.000 PTA; Mallorcara lurralde hori bizikletaz ezagutzeko, Apirilak 9-tik-15-ra, 34.000 PTA; Ampurdaneko ibilbide ekologikoa egin, Marisma-parke naturala, Oloteko sumendiak eta beste inguru ederrak bisitatuz, Apirilak 13-tik 16-ra bitartean, 23.000 PTA; baita Doñanako parkera ere, 19.000 PTA; Cadizko mendi katea oinez egiteko, Apirilak 12-tik 15-era 20.500 PTA. Informazio gehiago nahi izan ezkero Udaletxeko informazio bulegora jo daiteke edo Bilboko Ledesma kalera 7-1. ezkerrera.

Aktibitate abentureroagoak nahi baldin badituzue, Hidrospeed, Raftin, Parapente deitu Bartzelonako zenbaki honetara: (93) 31846184.

Baina lasai! Badaude urbilago eta "errazago" egin ahal diren irteerak, hain zuzen ere Club Deportiboko komisio ezberdinak antolatuta: Aste-Santuan Picos de Europara, eskiatzera asteburu guztietan Formigal, Candanchu... Eta zuek libreki nahi baldin baduzue joan Club Deportiboan 500 ptagatik kanpainadenda hartu eta hala!



EUSKAL PRENTSA


UniBerriak

Periódico Universitario - Unibertsitateko Aldizkaria

Joxe Miel Barandiaranek lanean jarraitzeko asmoa du

La ausencia de un clínico universitario dificulta la enseñanza en Medicina

Emakumea Unibertsitatean

Los ascos, el peor espectáculo al que se enfrentan las mujeres de la limpieza

Arqueólogos alaveses siguen las huellas de los balleneros de Euskadi en Canadá

Comisiones de apuntes Fotocopias encuadernadas Sin competencia Pulsando una tecla aparecen las K O P I A K

BANCO BILBAO VIZCAYA BBV Para todo el mundo

UNIBERRIAK

Euskal Herriko Unibertsitateak argitaratzen duen aldizkari hau bere laugarren alera iritsi da. Unibertsitatearen munduan murgildurik bizi diren guztioi zuzendurik, kazetaritza ikasle batzuek osatzen dute publikazio hau, maisu batzuren ardurapean. Dohainik zabaltzen da, bere presupuestoaren kargu unibertsitateak hartzen duelarik. Publizitate apur bat ere bada, baina maila oso txiki batean, hogeitalau horrialdetik bat, gutti gora-behera.

Publikazio honen helburua unibertsitatearen inguruan gertatzen diren gertakizun guztiak agertzea da. Aldizkaria euskeraz eta gazteleraz idatzita dago, baina, zoritxarrez, proportzioa ez da batere mesedegarria gure hizkuntzarendako: 24 horrialdetik, 15 gaztelera hutsean idatzita daude, 5 euskeraz soilik eta gainerako laurak hizkuntza biak nahasten dituzte. Beraz, hiru eta bateko desabantaila euskerarentzat. Aztertzen dugun zenbaki hau otsailekoa da.

Bertan, publikazio honetan ohi bezala, era guztiko gaiak topa dezakegu: erreportaiak, elkarrizketak, kolaborazioak, ikasleentzako albiste interegarriak, denborapasak... Gauza erakargarrienak José Ramón Recalde Hezkuntza Sailburuaren artikulu bat ("La autonomía universitaria"), eta Joxe Migel Barandiarani egindako elkarrizketa dugu. Medikuntza fakultatearen kokaketaren arazoa aztergai da ere. Baina, gure "eta kitto"-n gertatzen den bezala, arrakasta gehiago duen sekzioa inkesta fotografikoa da. Itxuraz, mundu guztiak bere kideen argazkiak ikusi nahi ditu. Bukatzeko, aldizkari hau unibertsitatean banatzen dela soilik gogoratu. Beraz, unibertsitaria ez ba zara, Euskal-Herriko Unibertsitatean ikasten duen lagun bati eskatu beharko diozu.

ERREDAKZIOAREN OHARRA

«**...Eta kitto**»ren erredakzio taldekoak, irakurlearen txokoa sekzioa mantentzearen alde agertzen bagara ere, zuen kolaborazioa beharrezkoa dugu. Horretarako animatzen zaituztegu nahi duzuenaren gainean idatz dezazuen.

MARI TERE MUNDUATE: EIBARKO LELENGO ANDEREÑUA

"NAHIXAO NEBAN EUSKERIAN ALDE EITTIA NAHIZ TA ASKOZ BE DIRU GITXIAO

Gaur egun badaoz hainbat ikastola, bai Eibarren ta bai beste herri batzutan be. Baiña zenbat izardi bota dia horrek hor egon daittezan? Batek daki zelako kalamidadiak pasau dabezen euskerazko irakaskuntzia nahi izan dabenek hori lortu deben arte. Horren gañian eta ikastolak Eibarren zelan sortu eta haundittu zian kontatzen dosku Mari Terek (gaur egunian ikastolan Eibarren bertan lanian dabillenak) ikusi daigun eztala erreza izan euskerian aldeko burrukia. Bera dogu Eibarren izandako lelengo andereñua.



Irakorketia ta idaztia txotxekin erakusten zan: letrak txotxekin eitten genduzen ta umiek txotxak borobildduta letrak eitten zebezen ta buruan grabauta geratzen jakuezan . Ta gero ba...kanikekin matematikia erakusten genduan. Jolasian ekiñian ikasten zeben umiek!!

Gaur egunian ostera, liburura jotzen da gehixao."

Zelan izan zan zure hasikeria andereño moduan?

"Ni Eskoriatzako auzogune batian jaixo nitzan, Saimutzen, 1936-ko Urrixan. Gerria be nerekin batera etorri zan. Magisteritzia Gasteizen eiñ neban. Eskoriatzan ez zeuan ikasterik ta guk beti jo izan dogu gehixao Gazteizera. Nik andereño karreria eiñ nebanian oso politta izan zan ze...gañera ba...1.957 ingurua izango zan orduan ta; gazte artian polemika haundixak agertu zian sozio-politika arluan. Zelan izan zian ta zeaitxik holako polemikak?! ba...han bazeualako jentia modu askotakua: bai pagokua eta bai pagobakua. Oso maixu honak euki genduazen. Nik ordutik aurrera eiñ dittut makiña bat kursillo pedagogixia ta metodo barrixen ganian ta ez dot pentsatzen asko gehixaorik ikasi dotenik ze...magisteritzan oso maixu onak euki nebazen.

Gero biharrian ba...lelengo Gasteizen bertan hasi nitzan sustituziño batzuk eiñaz ta gero Aramaixora pasau nitzan eskola batera ta han ba...kurso t'erdi inguru eiñgo neban. Ikastolak geruau ezautu nebazen, lagun baten bittartez. Ta...amak ta etxekuek be euskerian alde eitteko ta...neuk be

Zeaitxik aukeratu zenduan andereño izatia?

"Ba beitxizu...gauza bat da ba...eztakitt, ezin dot esan. Baiña oso txikittatik goguan dakat beti etxian zera esaten zestena: zer eiñgo dozu haudixa zaranian?. Ta nik beti andereño ta andereño. Nik beti maitte izan dot magisteritzia, ta gañera gure posibilidadien barruan zeuana zan ze...gu asko giñan, zortzi anai-arreba ta...baserri batetik danok aurrera ataratzeko modu bakarra hori izan zan.

Nik beti gura izan dotena da, eskola baten umiekin".

Zelan hasi ziñan ikastolekin hartuemonetan?

"Len hasieran esan doten moduan batez be hasi, hasi esaten dana, Aramaixoko eskoletan hasi nitzan, baiña harek nazionalak zian ta han txistik be ez zan entzuten euskeraz. Ta han bertan neuala nirekin ikasittako lagun bat hasi zan Bergarako ikastolan lanian. Bera, Elvira Zipitria zan. . Gerra ostian zabaldu zan lelengo Ikastolia ta bera be badakizu, ixilian ta...ordu batzuk bakarrik emonaz ta...badakizue ordukua. Ba emakume honek gerra aurretik be ekin zetsan lanari andereño modura. Donostian Muñoa batek zabaldu eban Ikastolia, ta hor lana eiñ zeben andereñuetakua zan Zipitria. Gerria etorri zanian beste aldera igesi juan bihar izan zeben. Hori izan ta urte batzutara, 60garrenian edo, Bergaran ikastolia nahi zala ta Zipitriari deittu zetsen. Zipitriak erabiltze ebazan metoduak nahiko barrixak zian, beste herri batzutatik aukeran hartutakuak ta pedagogixia aurreratua erabiltze ebenak. Ta holantxe, Ikastolan metodo barrixak erabiltzen hasi zian; ni askotan juaten nitzan Bergarako Ikastolara ikastera zelako metoduak zian ta...itzelezko aldia ikusi neban !!

Orduan Bergarako Ikastolako zuzendarixak esan zestan Eibarren be bazeuala asmua Ikastoliana ta...halantxe Eibarrera etorri nitzan. 1960ko Martxuan izan zan hori"

•Nik beti gura izan dotena da, eskola baten umiekin".

•Eibarren Bidebarrietan zabaldu genduan Ikastolia, pisu batian.

•Eibarko Ikastoliak sare publikuan sartzeko asmua agertu zeban.

Zelakua zan topau zenduan girua ta Eibarko Ikastolia?

"Orduan jentiak itzelezko bildurra zekan umiak Ikastolara bialtzeko. Benetan merittua zeken orduko gurasuak. Jakiñan ganian lelengotan behintzat ez genduala baimenik eta gañera umiek ez zebela eskolaridade kartillarik eukiko. Ikastolara juaten bazian. Harek izan zian urte gogorrak!!Gurasuek itzelezko alegiñak eiñ zebezen euskeria aurrera ataratzeko.

Eibarren Bidebarrietan zabaldu genduan Ikastolia, pisu batian.

Han urte t'erdi inguru egon nitzan. Lelengotan ume gitxi zian baiña gero betetzen hasi zan ta...handik Zezenbidera pasau giñan. Horretarako guraso batzuk dirua ipiñi zeben ta halantxe hartu genduazen hango lokalak. Hillian-hillian gero ta jente gehixao".

Ikastoliak ta bere metoduek zelan eboluzionau dabe?

"Len guztiz ezbardiña zan. Kontutan euki bihar da Ikastolan maixak genduzela alde batian ta ol txikitxo batzuk bestian ta...haren olen gañian eitten genduan lana borobillian jarritxa. Ta gero ba...eskribidu edo idatzi bihar genduanian maixetara juaten giñan.

Orduan euki genduan gauzarik latzenetarikua testu liburu faltia izan zan, ze...ez zeuan testu liburu erabilgarririk. Hori zala ta genduan guztixari balixua etaratzen genetzan. Esate baterako -Xabiertxo- liburua naturan, matematiketan...erabili genduan.

Gaur egunian Ikastolen egoerian gañian zer dao?

"Mundu guztixak jakingo dabenez Eibarko Ikastoliak sare publikuan sartzeko asmua agertu zeban.

Gauza bat dao garbi: publiko batek egon bihar dau nahi daben guztixak Ikastola publikora eta duhakora juateko aukeria euki deixan. Ta nik, ikusten dotenian, hainbeste lan eiñ eta urtietan inpuestuak pagatzen egon ta...hori eztabiela emoten...bene-benetan hasierako andereñua bihurtzen naiz barriro."

MUÑOA
ZURE AUTOARENDAKO ORDEZKO PIEZAK
Bidebarrieta 14, 16 Tel: 111317 116228

Larramendi
ETXERAKO
ELEKTRATRESNAK
ESTAZIÑO, 6 T EL: 113011

Jeronimo
Drogeria
Jostailu eta opari-artikuluak
Calbeton, 11 Tel: 111014

TXURRUKA
OPTIKOAK
ZEURE ZERBITZURA
Bidebarrieta, 62 Tel: 127021

ETESA
KOMERTZIALA
Bulego-materiala eta Altzariak
Bidebarrieta, 66 Tl: 121973-74

ARRATEKO ITSASONTZIA LANGA- BEZIAN



Natalitatearen jeitsiera honen faktoreak ulertzeko; Xabier Ayerdi, E.H.U.-ko soziologiako irakaslearengana jo dugu. Berak dioenez: "gizarte modernuko faktore inportanteenak kultural, ekonomiko eta sozialak bide hori hartu dute, eta berauei dagozkien baloreak inposatzen ari dira, hau da, aurretiko familia zabala, nuklearra deitzen dena bilakatuko da eta agian faktore ekonomikoak dirala nagusi. Gaur egun matrimonioek kalkulu razional eta estrategikoak egiten dituzte, zenbat seme-alaba izan pentsatuz, asko izateak ekonomikoki zenbat suposatzen duen kalkulatuz, pertsonalki ze aukera galtzen den... Eta lehen aipatutako baloreetara itzuliz, aipatu behar da, balore hauen artean, emakumearen rola, antisorgailuak eta abar ere hor daudela."

Hala esaten ohi zen antzinan, umeak Arrateko elizan dagoen itsasontzian zetozela. Baina badirudi azken urte hauetan itsasontziak ez daukatela lan haundirik. Inkestak esaten dutenez Gipuzkoa ume gutxien jaiotzen den probintzia da Europa osoa kontutan harturik. Datu hau nahiko kezkagarria da, gainera batzuren ustez egoera hobetu beharrean larriagotuz dihoa. Beherakada honen zergatia ulertzeko gure ingurura begiratzea besterik ez daukagu: gaur egun emakumeek lan egiten dute, eta honen ondorioz askatuagoak sentitzen dira, gainera umeak zaintzetik aparte beste behar batzuk ere badituzte. Bestalde, gizarte kontsumista batean bizi gara, dena nahi dugu, pisua, kotxea, umeentzat klase partikularrak (inglesa, dantza, musika,...), bideoa, egun bakoitzeko jantzi desberdin bat,... lista bukaezina da. Guzti hau bost seme-alabarekin imaginatzen badugu diru pila bat suposatzen du nahiz eta senar emazteek lan egin.

Beraz, gaur egungo bikoteek seme bat, bi edo gehienez hiru izaten dituzte. Hala ere, bada semerik ez daukatenak ere, eta halako bikote batekin hitzegiten jardun dugu, neskarekin hain zuzen, bulegaria da: "



Bion artean seme-alabarik ez izatea erabaki genuen, lehentasuna beste gauza batzuei ematen diogulako. Ume bat edukitzea oso serioa da, denbora asko kentzen dizu, heziketa on bat eman behar diozu, eta zure gauzetarako denborarik ez zaizu gelditzen. Sasoi batean ingurua edo medioa desberdina zen, adibidez baserrian umeak berez hasten ziren, ez zitzaion heziketari horrelako garrantzirik ematen, geroz eta gehiago exigitzen digu, bizi garen kontsumo sistema honetan ez da nahikoa umeei jaten ematea, orain ikastolatik aparte beste exigentzia batzuk ere badira: ingelesa, musika,..."

Jarraitu digu esanaz "niri umeak asko gustatzen zaizkit, baina askatasuna behar dut beste gauza batzuk egiteko. Jende gehienak dioenez diruagaitik ez du seme gehiago ekartzen, edo batere ekartzen. Nire ustez ez da hori arrazoia. Jendea lehen ez zen orain baino hobeto bizi, zeukatenarekin pasatzen ziren eta umeak baserrian landatutakoarekin hasten ziren. Orain hori ez da nahikoa, beste behar batzuk ere badaude, eta horiek betetzeko ezin duzu hiru, lau seme-alaba izan."

Egoera guztiz kontrakoa daukan emakume batekin ere egon gara; Kili-kili-n tabernari dagoen Mari Karmen Guisasolak zazpi seme-alaba dauzka, denak jarraian. Berak dioenez "oso gustora nago horrela, ez naiz batere damutzen hainbeste ume izateagatik. Gaur egungo gazteak beste pentsakera desberdin bat daukate, beharbada praktikoagoak dira, askatasun gehiago nahi dute. Orain normala da ume gutxiago izatea, ni momentu honetan euren adina izanda beharbada berdin jokatuko nuke."

NATALITATEAREN JEITSIERARI BURUZ ZER DAUKAZU ESATEKO?



Frantzisko Jabier Umerez. 32 urte. Langilea.
"Hala entzun dut telebistan, ez dakit egia ala gezurra izango den. Gaur egun jendeak seme bat edo gehienez bi edukitzen ditu, aldiz orain dela hogei urte hiru edo lau anai-arreba izatea guztiz normala zen. Gai hau diruarekin oso loturik doa, bi ume baino gehiago izateak diru pila baten beharra suposatzen du."



Amaia Urzainki. 24 urte. Lanean.
"Bakoitzaren egoera eduki behar da kontutan. Gaur egun jendeak kontu gehiagorekin harrzen du umeak edukitzeko erabakia. Lehen gure gurasoak ez zuten hainbeste pentsatzen seme-alabak izan ala ez izan. Gainera langabezia dela eta zailago egiten da semeak izatea, diru asko suposatzen bait du."



Maria Elena Kortabarria. 47 urte. Etxekoandrea.
"Ume gutxiago daudela argi dago, batez ere bizimodu kalitatea ona izateko baztertzen da pixka bat umeak edukitzea. Ume asko izan ezkero nagusiak direnean problemak sortzen dira: heziketa, ikasketa, .., ezin diezu behar bezala eman."



Maite Barrutia. 12 urte. Ikaslea.
"Nire ustez geroz eta neska gutxiago jaiotzen da munduan, horregatik izan daiteke jeitsiera hau. Niri asko gustatzen zaizkit umeak eta espero dut nagusia naizenean bat baino gehiago eukitzea."



Marisol eta Antonio. 21 urte. Ikaslea eta langilea.
"Ez dago bizimodua ume asko mundura ekartzeko moduan, langabezia haundia dago. Guk, umeak eukitzekotan bat edo bikin nahikoa daukagu!!"



Kepa. 73 urte. Jubilatua.
"Nola ez da jeitsiko, emakumeak ez dute umerik ekarri nahi eta!! Nik gustora ekarriko nuke seme bat norbait prest egongo balitz... Gaur egungo emakumeek jolasean ibiltzea besterik ez dute nahi."



Abel Villanueva, 59 urte. AYA-ko langilea.
"Ezkontzea, seme-alabak eukitzea, soldata baxu batekin familia osoa mantentzea gauza gogorra iruditzen zait. Nik ez daukat horrelako buruhausterik ezkongabea naizelako."



Irene. Merkatu plazan lanean.
"Bizimodu kalitate hobeagoa, komodidadea, ez datoz bat ume gehiago edukitzearekin, dena ezinezkoa da. Ume asko edukitzea nahi baduzu gehiago sakrifikatu behar da."

FIAT EIBAR
VICTOR SARASQUETA, 7
12 10 00
12 10 19
HOGEI, S.A.

APIRILAKO AGENDA

KIROLA
Ziklismoa. Eibarko Klub Ziklistak antolatuta:
8an: VALENCIAGA MEMORIALA
22an: OCHOA MEMORIALA. Jubenilak eta afizionatuak.
26an: EIBARKO ZIRKUITOA. Alebinak, Benjaminak eta umeak.
SKIa ASTEBURUETAN
FORMIGAL
Martxoak 31/Apirilak 1
7/8an
IRTEERAK: Larunbatetan, goizeko 4,3Oetan
PREZIOA: Bazkideak: 8.OOO.-Pzta./Beste.:8.5OO.-Pzta.
Autobusa/Hotela pentsio erdian eta Forfait BARNE
Ikastaroak eta materiala alokatzea AUKERAN
ASTE SANTUA: Frantziako Pirineotan. 13tik-16ra
BAZKO ASTEA: Frantziako Pirineotan. 13tik-21era
INFORMAZIOA: K.Deport. Ski Taldea 11 19 O4
MENDI IBILALDIAK: K.Deportiboko Mendizale Taldeak antolatuta:
13 - 14 - 15 eta 16an: ASTE SANTUKO IRTEERA "PICOS DE EUROPA"
21an: Urnieta - Usategieta Mendatea
UMEENTZAKO IRTEERAK
1an: UZTURRE (Tolosa). IRTEERA: Goizeko 8.3Oetan. BUELTA: Eguerdirako. IZENA EMATEA: K. Deportiboan. Eskola bakoitzean edo 1119O4 telef. Astelehen eta asteartetan 7,3Oetatik 8,3Oetara
NAZIOARTEKO SUKALDARITZA BEGETARIANOA - IKASTAROA
NOIZ: Apirilaren 26tik aurrera. Ostegunetan. Arrats. 7,3Oetatik - 9,3Oetara
TOKIA: "Centro Familiar y Social" delakoan. Argatxa Jardinetan. 117376
PREZIOA: 8.OOO.— Pzta. / 8 Klase gehi AFARI edo eta BAZKARIAK parte hartzen duten guztienentzat BARNE.
Entsaladak, Afari Afrikarra, postreak, esnekiak, edariak...
UDALEKO KULTURA SAILAK ANTOLATURIK
ERAKUSKETAK - Udaletxeko Kultura Aretoan
1tik - 15era: XABI IDOATE - PINTURA
18tik - Maiatzaren 1era: RALPH HORTON - PINTURA
KONTZERTUAK
Martxoak 31: SAKRO KONTZERTUA- LOINAZ, SOSTOA ETA JUAN GISASOLA KONTZERBATORIOKO HAUR ABESBATZAK. San Andres Parrokian, Gabeko 1Oetan
8an: Musika eta txistularien Banda
22an: Musika eta txistularien Banda. Kontzertua eta kalejira
28an: Arratsaldeko 7,3Oetan. "Ahots kontzertua". Kontzerbatorian.
EUSKARA BATZORDEAREN TAKIAN-POTIAN PROGRAMA
HITZALDIAK: Ponentea Arantxa Lizaso (EROSKI)
5an: "JANARIEN MANIPULAZIOA ETA GARBITASUNA". "MANIPULATZAILEAK: Indarrean dagoen Araubidea". (Izaskun Unanue - Albaitari titularra)
3an: "NUTRIZIOA"
Hitzaldiak adierazitako egunetan arratsaldeko 3retan. "CASA DE GALIZA". URKIZUn.
LAGUNTZAILE: Ongizate Batzordea, KUIB (OMIC) eta EROSKI
LIBURU - AURKEZPENAK
3an: BABILONIA. Autorea: J.M. Irigoien / Kritikoa: Andres Alberdi.
1Oean: GURE MENDIETAKO BIDE EZEZAGUNAK. Autorea: M.Angulo / Kritikoa: k.Deportiboko Mendi Taldea.
24ean: HERIOTZA EUSKAL HERRIAN. Autorea: A.Agirreazaldegi. ELKAR Argitaletxearen Laguntzaz. Aurkezpen guztiak adierazitako egunetan arratsaldeko 7etan Udaletxeko Batzar Aretoan izango dira.
IKASTAROAK
OINARRIZKO ITZULPENGINTZA: Ikastaro hau talde, kolektibo, erakunde...etabarretako kideei zuzenduta dago batez ere. MATRIKULA: 1.OOO — Pzta./IZEN EMATEA: Udaletxeko Euskara Zerbitzuan.
METEREOLOGIA:
HASIERA: Apirilaren 23an, AMAIERA: San Juanetarako.
NOIZ: Astelehen eta Asteazkenetan. 19etatik - 2O,3Oetara.
NON: Klub Deportiboan MATRIKULA: 1.OOO.—Pzta.
IRAKASLEA: Pello Zabala. Euskadi Irratiko metereologoa
IZEN-EMATEA: Udaletxeko Euskara Zerbitzuan apirilaren 1Oa baino lehen.
EGUR-TAILA:
HASIERA: Apirilaren 6an
NOIZ: Ostiralero 3,3Oetatik 6,3Oetara edo 7etatik 1Oetara
NON: Famili eta Gizarte-Hezketarako Zentruan, Argatxa Jardinetan. (117376)

NORK - ZER

KOORDINATZAILEA:
FERNANDO MUNIZGUREN
ERREDAKZIO TALDEA:
ANA AIZPURUA
IOSEBA ZINKUNEGI
MIREIA UGARTEBURU
IDOIA IRAZOLA
FERNANDO MUNIOZGUREN
AMAIA MURUAMENDIARAZ
OSCAR RECALDE
ASIER ARRIETA
ARRATE ZULOAGA
AITOR GOROSABEL
ARGAZKILARIAK:
JOSE VALDERREY
MIREIA UGARTEBURU
MANUEL LOPEZ VILLORIA
MAKETAZIOA:
JOSE VALDERREY
OSCAR RECALDE
KOMIKIA:
ANDER GISASOLA
IMPRIMAKETA:
GERTU